

FORU ERREPIDEETAKO ZARATAREN ERAGINPEKO ETXEBIZITZETAKO ISOLAMENDU AKUSTIKOA

Helburua (zioen azalpena)	Soinu-presioaren maila gutxitzea foru errepideetako zarata gehien jasaten duten eraikinetako etxebizitzaren erabilera sentikorrek dituzten gelen barnealdean, leihoak aldatuta. Kalitate akustikoko helburutzat ezarritako mailak betetzen direla bermatzeko isolamendu akustikorako ahalmena duten beste leiho batzuk jarriko dira haien ordez, zaratari buruzko araudiarekin bat etorriz.
Erakunde onuradunak (1. eta 2. art.)	<p>Irabazteko asmorik gabeko elkarateak, pertsona fisikoak edo juridikoak, bizitegi-eraikinetako isolamendu akustikoaren planaren baitan eginiko lehentasun-indizearen arabera lehentasun-indize handiena duten etxebizitzaren titularrak direnak. Hona hemen eraikinak:</p> <p>Iparragirre etorbideko 22. ataria (Leioa).</p> <p>Iparragirre etorbideko 24. ataria (Leioa).</p> <p>Filomena Baldezate kaleko 2. ataria (Bilbo).</p> <p>Norberto Acebal kaleko 6. ataria (Barakaldo).</p> <p>Estartetxe kaleko 24. ataria (Leioa).</p> <p>Galtsua kaleko 1. ataria (Barakaldo).</p> <p>Bizkerre kaleko 30. ataria (Getxo).</p> <p>Iparragirre etorbideko 44. ataria (Leioa).</p> <p>Camilo Villabaso kaleko 12. ataria (Bilbo).</p> <p>Iparragirre etorbideko 2a. ataria (Leioa).</p> <p>Estartetxe kaleko 7. ataria (Leioa).</p> <p>Estartetxe kaleko 15. ataria (Leioa).</p> <p>Mendibil kaleko 2. ataria (Leioa)</p> <p>Filomena Baldezate kaleko 1. ataria (Bilbo)</p> <p>Zorrotza-Kastrexana errepideko 27. ataria (Bilbo)</p> <p>Horrez gain, beharkizun hauek bete beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Etxebizitzak bizitegi-erabilerako kalifikazioa ezarrita edukitzea eta zaratarekiko toki sentikorren bat edukitzea, hots, logela edo egongela. -Titularrak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea. -Helburu bera betetzeko emandako laguntza edo diru-laguntza publikoen edo pribatuen onuraduna ez izatea, salbu eta horien zenbatekoak ez badu gairatzen diru-laguntzen dekretu honetan bildutako kostua. Hala bada, Diru-laguntzen Foru Arauko 18.3. artikuluan ezarritako bateragarritasun araubidea ezarriko da. -Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan ezarritako inguruabarretako batean ere ez egotea.
Diruz lagundu daitezkeen egitateak (4. art.)	<ul style="list-style-type: none"> • Zaratarekiko sentikorrak diren geletako isolamendu akustikorako ahalmen handiagoa duten leiho batzuk jartzea egon daudenen ordez, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak kontrataturiko ENACek egiaztaturiko enpresak egin duen txostenari jarraiki. Ondorio horietarako, gela sentikorrek izango dira bizitegi-erabilerako eraikinetako logelak eta egongelak.
Diruz lagundu daitezkeen gastuak (5. art.)	<ul style="list-style-type: none"> • Leihoek orotara duten kostua, markoa, beira jartzea eta pertsianako kaxa barne, baita leihoak jartzearen ondoriozko igeltserotza-lanak eta, hala denean, leiho zaharrak kentzekoak ere. • Ezin izango dute diru-laguntzarik jaso eraikinetako beste bao batzuetako leihoak aldatzeko obrek baldin eta gela sentikortzat jotzen ez badira (ez dira horretan sartzen, beraz, sukaldeak, komunak, eskailerak eta oro har 4. artikuluan zehazturikoetatik aparteko edozein erabilera). Jabeek egokitasun-irizpideen arabera aldatzea erabakitzen duten leihoak aldatzeko lanak ere ez dira horretan sartzen, ezta jabeak zurgin-lanen kalitatearen, akaberen, isolamendu akustikoarekin zuzenean lotuta ez dauden obra osagarrien, aurretik ez dauden balkoien itxituren eta planaren xedearekin zerikusia ez duten beste edozein jarduketaren aldetik jabeak eskaturiko hobekuntzen ondoriozko lanen gehiegizko kostua ere. Aparte gelditzen dira finantzaketa gastuak ere (onuradunek leihoak aldatzeko obrak egiteko eskaturiko edozein maileru).

Laguntzen zenbatekoa (6. art.)	Isolamendu akustikoko hobekuntza-lanetarako diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa 620 €-koa da leihoko m ² bakoitzeko (BEZ barne).
Araudia eta diru-laguntzak araubidea emateko	<ul style="list-style-type: none"> • 00180/2021 Foru Dekretua, foru errepideek sortutako zaraten eraginpeko Barakaldo, Bilbo, Getxo eta Leioako udalerrietako hamabost etxebizitza-eraikinetan isolamendu akustikoa jartzeko emandako laguntzen oinarri arauemaileak eta deialdia onetsi dituena, eta Foru Administrazioak emandako Diru-laguntzen Araubide Juridiko Orokorra arautzeko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua. • Lehia da diru-laguntza emateko prozedura (3. Art.).
Izapideak eta Epeak (7.-14. art.)	<p>Izapide behinenak eta kontuan hartu beharreko epeak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskabideak aurkezteko epea: 2022ko urtarrilaren 4etik otsailaren 3ra • Etxebizitza joatea, txostena egiteko: behin eskabidea onartuta, txostena egiteko kontratatutako enpresak posta elektronikoko bidez hitzartuko ditu eguna eta ordua bisita egiteko. • Dirulaguntza onartu ala ukatu den jakinaraztea: jakinarazpena posta elektronikoen bidez egingo da, edo, bestela, posta arruntaren bidez. • Obrak egiteko epea eta fakturak aurkeztea: diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik 2023ko urtarrilaren 8ra. Egun horretan aurkeztu beharko dituzte gastuaren frogagiriak eta leihoen CE Ziurtagiria. <p>Eskabidea eta gainerako agiriak Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko Bulego Birtualaren bitartez aurkeztu beharko dira (www.bizkaia.eus/Sustapena-BulegoBirtuala). Horretarako, izenpe elektronikoa eduki beharko da (Izenpea, NAN elektronikoa, FEA...), alta emanda egon behar da Bizkaibai zerbitzuan, edo Orueta Gotzaina, 6.eko gure bulegoetan eska daitekeen B@kQ ziurtagiri elektronikoen bidez sartu.</p>
Isolamendu akustikoaren kalitatea (15. Artikulua eta III Eranskina)	<p>Behin dirulaguntza onartzen duen ebazpena jaso ondoren, onuradunak instalazioa egiteko enpresa aukeratuko du, eta harekin kontratatuko eta egingo ditu obrak.</p> <p>Kontuan izanik garrantzitsua dela lortu behar den isolamendu akustikoaren mailak bat etortzea Sailak kontratatutako enpresak egindako txosten teknikoan jasotakoarekin, instalatzaileari exijitu beharko zaio bete dezala obren kalitateari buruzko gida teknikoa: III. eranskina. Isolamendu akustikoko lanen kalitateari buruzko gida teknikoa.</p>